

# BARNE GAZTELUA

*«Gure arima Gaztelu bezela gogo eman dezakegu, dena diamante edo leiar disditsu, egonleku asko dauzkana» (Santa Teresa, Egoitzak, 1,1,1).*

Liburu auxe da Teresa Idazlearen ospetsuena. Leen eta orain beti izan du, eta izango ere bai, merezia duen entzute ez txikia. Liburu bikain onen argitalpen asko egiten dira urtez urte, itzulpenak berriz munduko izkuntzari geienetara egitiak daude. Edozein ikastetxe, txiki naiz aundi, Teresa deunaren dotriña irakasten ari da. Barne Gazteluan datorrena batez be, bere egunetakoa eta gaurkoa dugu. Liburu auxe da, izan ere, beste guztietan datorren laburpen osoa ta argia. Berton diosku Tererak, arimeak zer egin bear duen Jainkoarekin elkartu ta kristau bizitza eramateko, egin ere.

Teresa etzan izan eguneroko gauza bat, noizik bein —gizaldiak igaro ondoren, bear bada— goitik jaisten dan argi-izpi ura baizik. Izpi orrek erakusten die gizoneti, giza tartean egon eta gizasemeak ez ikusi ta ez ikasten ez duten egia. Teresa izan zitzaigun olako bat, goi-argiak bizkortua, gizateko egiaz jabetu zana.

Munduko kristau literaturan era askotako liburuak dauz-



kagu kristau bizitza, bere barne-bizitza zabal sakonean, edo ki azaltzen digutenak. Teresa Deuna ez-erik, ba-ditugu oriz Teresatxo deuna bere «Arima baten Edestia»-n, Juan XXIII garren Aita Santua bere Egunkarian, beste askoren artean.

Santa Teresa'k kristau bizitzaren laburpen bikaina eskeintzen digu, ez gero bere *Bizitza*'n bakarrik, baita *Barru-Gaztelu* edo *Egoitzak* deritzan beste idatzi oso mamitsu bat ere. Berak urtez urte bizi izan zuena ematen digu ez berak ondo ausnartu ta bizi izana, oso zintzo ta egiti adierazia. Ba-ziran leendik ere otoitz-bizitza ederki azaltzen zuten liburuak. Teresa'k, ordea, bere alabei batez ere, era ulertzerrean jartzen die gau ta egun bizi bearra daukaten ototoz jardun ori: barruan daramagu Jainkoa, geure Jaube ta Ossun; Berak ezagutu, maitatu ta zerbitzea dugu santutasun bete.

Barne-Gaztelu deritzan liburu onek ez digu besterik irakasten. Titulu olerkitsuaren azpian geure ezpirituzko bizibidea daukagu; auxe da kristau bizitzaren zentzu osoa. Egozleku edo bizitoki asko dauzka gaztelu onek, goian, bea erdian. Jendea, ona izan nairik, araxe dioa; txiki ta aund jakintsu ta ezjakitun, zaar eta gazte, barne-dei bati erantzenaz. Gazteluaren diztirak lilluratuta bezela, pozik doaz arako bidean zear. Aurrerantz egin eta lenengo atear igaruta ezkerreara begiratu, bizitokirik asko jartzen zaizkie begien aurrean. Au zoragarria!

Aurreragotzeko, ala ere, munduko zer askori agur egin bear. Sarreran eta aurrerago ere ba-dira sugeak eta zapoak —deabrua, mundua, aragia— zirika daudenak. Tentalditan biotz zabalekoak bakar-bakarrik iritxi oi dute garaipena. Naitaez, orraitio, Jainkoa bere aunditasun sakon-betean aurkitzen dan lekuraño eldu al izateko, aurrera urrats egin bear.

Aitor dezagun berriz ere: gaztelu ori ezta gure irudimenez aragitzen dugun gauza bat, geure izate barruan daramagun ezpiritua baizik. Ederra noski, Jainkoak bere antz-iduriko egiña, Berak bizi-indartu ta Berak iraun-ariaz:

gure daukagu Jainkoa, gazteluaren erdi-erdian. Ondorioz kristau bizitzak auxe eskatzen digu: barnean bildu, antzera esan dugunez, eta Jainko-berotan bizi, Jainkoa bizi sortu, urko laguna, maitatu.

Gaztelu irudi au ez duzu gaurkoa, ezta Erdi-Arokoa ere, erakusten diguna baizik. Eta Paul Deunak: «Aurrerakin elkartzen dena, ezpiritu bat egiten da Aurrerakin». Ala ere, lanari lotu bearra: ez da dena gazteluan egin. Zer-edo-zergatik dakarkigu Paul Deunak burru-bizitza. Eta Ebanjelioak ere gizaseme adierazten gura ditu zeruko erreñua eskuratu al izateko.

Ez da gainera kanpora begiratzen duen eraso ta burruka, barrura begira dagoena da. Ortik datorkio izena, *Barne Gaztelu*. Gizonak emen, burrukatuz, barne-batasuna lortu bear. Barnean daramazkin aurkako indarrak bateratu, bakoitz bere izatearen ondo-ondoan dituen indar-kemenak lotu leun-gozoz estuturik. Auxe duzu kristau bizitzaren mistikoa, grazi-bizitzaren indarketa berezi-berezia. Gaztelua bake-koa da, ur gardenaren sorburu, Irutasun Deunaren bizitoki.

Beraz, zer adierazten digu Gaztelura sartzeak? Norbere barne sartu ta geurekin dugun Jainkoarekin Onen maitatzen murgildu; norbere burua ezagutu ta Jainkoarekin bat egiteko ari izan. Esanik utzi dugun kristau bizitza, eguneko burruka da, ez azalekoa gero, barru-barruko baizik: ez ibilli, lanari ekin, maitatu. Ez dago nagi egoterik. Kristoak Kristogan bizi bear du, Paul'ek dioskunez.

Teresa'ren gaztelu bizitzan bi ekinaldi ditu kristauak: lanaren ta atsedena. Lenengo iru egoitzetan arimak lanari ekin bear dio, garbitu ta duindu dedin; besteetan, ordea, lan ezkutu ta misteriozko baten bitartez, izaki barri lortu bear du. Lantxanda ta gozamina noski.

Irudikizun edo sinbolu, au da, gazteluarenak, mami ugariz jantzirik dago. Esan dugunez, ez da gaztelu barrura sartu ta geldi, zabar egitea; giza-bizia burruka dugunez, ezin gara besoak gurutzatuta —esan oi da— ats-artzen bare ta



naro egonean egon; ats-artu ta aurrera jo bear da, bide  
doanak egiten duenez. Gizonak onela ibilliz barrubatasun  
lortu bear du, orixe bait da bere jomuga ta elburua. Kan-  
potik barrura sartzean barne darana indar eragabeen ma-  
pilla eta or barruan indar bakotxa bere lekuan ezarri bear  
da, eresbatzean notak legez. Ori da burruka, kristau bizitza-  
batez ere.

Aurrerago joaz galdetu dezakegu oindio: Nun asten da  
kristau bizitza? Gazteluan sartzea, esan dugunez, norbera  
barruan sartzea ezta besterik, kirikiñoa bere zizta-zizta  
barruratzen dan bezela. Barruan kiribildu ezik, ez dago nor-  
bera zer dan jakiterik. Barrura jo ta zer garean ezagutu  
orduante jakingo dugu Jainkoarekin nola jokatu. Garkar  
jakintsuen artean ba-zuten onako kezka bizia, gauzen ma-  
mia adierazi naia noski; gizonak nor dan eta zer dagian jakin  
bear du bereziki. «Ezagun ezazu zeure burua», zioan Sokrates  
filisopu aundiak. Jar eizu, beraz, zeure barrua argitan, buru-  
-jantzi ta sotil egiñik.

Gazteluan sartu diran arimak, otoitzean jardutea daukate.  
Teresa'k onela: «Otoitzik ez duen arimea, gorputz elbarritu  
baten iduriko da; esku-oiñen jabe dan arren, ez da gauza  
euroi eragiteko». Otoitza da, gaztelu ontan sartu ta aurrera  
egiteko bide bakarra. Zein otoitz, baiño? Ona berriz ere  
Teresa'k: «Ez dut esan nai gogozkoaren alde, aozkoaren  
alde baiño geiago dagonik, otoitza ba'da, gogoz ausnarturik  
egin bear da-ta». Eta otoitzean aurrenen egin bear dama?  
Esan dugu, norbere burua ezagutu. Entzun Teresa'ri: «Nor-  
bere burua ezagutzea, arimea danik eta goren aurkituta ere,  
ez da inoiz baztertu bear, otoizlariak bere zeregiñik beñena  
orixe du-ta. Apaltasunak beti daki, erleak erlauntzean legez,  
bear dan ezta ontzen, au barik guztia alperrik litzateke-ta».

Eta, azkenez, gaurkotasunik ote du *Egoitzak* deritzaiogun  
liburu onek? Oba ez! Teresa Deunak eta Gurutzeko Juan  
doneak, esaterako, izan zituzten santutasunerako bide lau-  
tik saiesten diran zer batzuk, au da, mistiku-gertakari oie-  
langoak. Baiña kristau bizitza egiatzkoa eramateko ez da oie-  
korik bear, olako barik ere guk iritxi dezakegu deuntasin  
tontorra, Jainkoaren grazia lagun. Holandako Kristau-ikar-  
bidea oraingoa duzu, ta onela:

«Mistiku aundienak —dio— otoizbide garaiena legez adie-  
rartzen dutena, orrelako gertakari edo fenomenurik gabe  
egertzen da beti. Gauza arruntena bezela. Teresa santuak  
liburu baten adierazten digunez, arimea zazpi gelatako gaz-  
telu bat da. Batak bestcaren ondoren, beti erdirago gara-  
-tate gela oiek, zazpigarrenera, Jainkoa, ots, Kristo bizi  
dan danera eldu arte. Jainkoa egonleku guztietan nabari da;  
baiña, gazteluaren erdi-erdira, gazteluaren biotzera eltzean,  
Jainkoa norberaren barnean dagoelako sentimentuak bake  
-tan betetzen du mistikoa barne-muiñetaraiño. Larreko gau-  
zen artean bizi da gizakia; baiña miresgarriak gertatzen  
guzkio ortan: onekin bait da jabetzen, Jainkoa dala gauza  
guztien biotz adiera-eziña».

*Aita Onaindia*